

AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAKO MERKATARITZA-INDIZEA. 2024KO EKAINA

Euskal Autonomia Erkidegoko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,3 murritzuta dira 2024ko ekainean

Lehenengo sei hilabeteetako metatuak % 0,2ko jaitsiera izan du salmentetan


Eustaten datuen arabera, eta prezio konstanteetan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,3 murritzuta dira 2024ko ekainean, aurreko urteko hil beraren aldean.

2024ko maiatzarekin alderatuta, ordea, prezio konstanteetako salmentak ez dira aldatu.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak

Indize orokorra Janariak Gainerako produktuak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Elikagaien sektorean, prezio konstanteetan salmentak % 0,7 handitu dira hil artean. *Gainerako produktuen* sektorean, aldiz, salmentak % 1,4 murritzuta dira.

Urte artean, 2024ko ekaina 2023ko ekainarekin alderatuta, prezio konstanteetako salmentak % 0,3 murritzuta dira *Elikaduraren* sektorean eta % 3,2 *Gainerako produktuen* sektorean.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2024

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-1,3	0,0	-0,2
Araba/Álava	-3,8	-1,2	-0,1
Bizkaia	-0,6	0,8	-0,7
Gipuzkoa	-1,3	-0,8	0,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	-0,3	0,7	0,3
Gainerako produktuak	-3,2	-1,4	-1,3
ENPLEGU-INDIZEA			
Euskal AE	1,7	1,3	1,2

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2024ko Uztailaren 29a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

2024ko ekainean azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek behera egin dute urte arteko prezio konstanteetan hiru lurraldeetan: % 0,6 Bizkaian, % 1,3 Gipuzkoan eta % 3,8 Araban.

Aurreko hilaren aldean, hau da, 2024ko maiatzaren aldean, salmentak % 0,8 gehitu dira Bizkaian. Araban eta Gipuzkoan, aldiz, salmentak % 1,2 eta % 0,8 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langile okupatuak, azkenik, % 1,7 gehitu dira 2023ko ekainarekin alderatuta. Hil arteko datuei dagokienez, indizea % 1,3 igo da.

Lehenengo sei hilabeteetako metatuak % 0,2ko jaitsiera izan du salmentetan. Jaitsiera hori hiru lurraldeetako bitan eman da: -% 0,1 Araban eta -% 0,7 Bizkaian. Gipuzkoan, aldiz, lehenengo sei hilabeteetako salmentek puntu erdiko igoera izan dute. Elikaduran salmenten metatuak % 0,3ko igoera izan du, eta Gainerako produktuetan aldakuntza metatua negatiboa izan da, % 1,3koa.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegi-efektuen serie zuzenduetatik eta hilabete arteko aldaketetatik abiatuta kalkulatzeko dira, urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie merkataritza-indizea egiten lagundu duten azalera handietako eta elikadura-kate handietako establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea **% 100eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62